



EUSKALTZALEON MARTXA EKAINAK 13 > IRUÑEA

Euskaltzaleon Martxa lelopean, [ekainaren 13an](#) Iruñeko kaleak betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara Euskalgintzaren Kontseiluan, joan den [abenduaren 27an](#) Bilbon egindako ekitaldian iragarri bezala. Jarraian jaso ditugu hitzorduaren ezaugarriak eta herrietan honen lanketa egiteko irizpideak.

Testuingurua

Euskararen normalizazio eta biziberritzean asko aurreratu dugu azken hamarkadetan, baina gero eta gehiago dira larritasuna adierazten diguten datuak, ikerketak eta aurreikuspenak.

Euskarak jauzi bat behar du hizkuntza-politikan. Paradigma aldaketa bat. Ezagutza benetan orokortuko duten politikak, erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurriak, ofizialtasuna Euskal Herri osoan, zeharlerrotasuna politika publiko guztietan. Tresnak badakizkigu. Oinarriak landuta daude. Adostasun sozial zabala eraikitzen ari da.

Hala ere, badakigu euskararen normalizazioa eta biziberritzea eraldaketa sozialeko prozesu bat dela, eta, ondorioz, aurrerapausoak ez direla soilik esparru instituzionalean erabakiko. Indar sozial antolatua eta herritarren inplikazioa ezinbestekoak dira euskaltzaletasunaren giharra indartzeko.

Testuinguru horretan kokatzen da ekainaren 13an Iruñean egingo dugun mobilizazioa. 2024an irekitako bideari jarraipena emanez, helburua da egungo larrialdi linguistikotik indarraldira igarotzeko premia gizarteratzea eta pizkunde berri baterako txinparta izatea. Abenduan Bilbon egindako ekitaldiak diskurtso hori plazaratzeko balio izan bazuen, ekaineko hitzordua Pizkunderako behar ditugun baldintzen aldarrikapenerako gunea izango da. Euskaltzaleok antolatzeko beste urrats bat, **Euskaraz bizitzeko behar den dena** eskuratzeko bultzada.

Euskalgintzako eragile zareten aldetik, zuen egitekoa giltzarria da: mobilizazioaren zentzua partekatzea, sareetan deialdia zabaltzea eta herritarren aktibazioan eragitea.

Ekainaren 13a mugarri izatea nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa izango da guztion inplikazioa!

Mobilizazioaren Izena: EUSKALTZALEON MARTXA

Leloa: EUSKARAZ BIZITZEKO BEHAR DEN DENA

Egunaren izaera:

Mobilizazioa arratsaldez egingo da, eta Iruñeko kaleak betetzeko hiru tokitan elkartuko dira herritarrak eta hiru zutabe abiatuko dira, ekitaldi nagusia burutuko den puntu bakarrean elkartzeraino. Zutabe bakoitzak euskararen pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarrietako bana ordezkaturako du.

Lehenengoa, euskarak Euskal Herriko lurralde guztietan ofizialtasun osoa izan dezala aldarrikaturako duena. Bigarrena, hizkuntza-politiketan jauzi bat eragiteko asmoz erakundeak, alderdiak eta eragile sozialak interpelaturako dituena. Eta hirugarrena: euskaltzaletasunaren ekarpena aldarrikaturako duena, azpimarraturako duena egunerokoan euskaltzale gisa jokatzearen garrantzia eta euskaltzaleak elkarrekin antolatzearen premia.

Egunaren egitura:

- Goizean zehar Iruñeko eragile ezberdinen eskutik kale girotzea egongo da. Alde Zaharrean izango da, baina modu deszentralizatuan. Beraz, egun osoan zehar Iruñeko kaleak euskaltzalez betetzeko deia egingo da.
- **Arratsaldeko mobilizazioa:** 17:00etan, Iruñeko hiru leku desberdinetan elkartuko da jendea, Antoniutti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza, eta hiru zutabetan antolatuta egingo da martxa bana Gazteluko Plazara, hor izango da bilgune nagusia eta amaierako ekitaldia.
 - **Zutabeak:** 17:00etan bilduko dira herritarrak Antoniuttin, Runako Parkean eta Askatasun Enparantzian.
 - Zutabeetako bakoitza irekitzen jai-ospakizun giroarekin lotuko duen zerbait joango da eta bakoitzak euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarrietako bana ordezkaturako du.
 - **Ekitaldia eta bilgunea:** 18:00etatik aurrera Ekitaldi politikoa egingo dugu Gazteluko Plazan, eta jai giroko erritualizazio batekin amaituko da.

Zer eskatzen dizuegu?

Euskaltzaletasuna aktibatzen laguntzeko proposamena:

«Ohartu euskara minorizatutako hizkuntza dela eta zu zeu minorizatutako hiztuna. Euskararen alde hartzen ez den erabaki bakoitzak minorizazioa indartzen du».

Ekitaldira deitzeko, zein giroa berotzeko, ekimen eta ekintza komunikatibo ugari egin daitezke. Hemen ideia sorta bat jasotzen dugu. Ahal den heinean, saiatu herriko, auzoko edo eskualdeko **euskalgintzarekin eta norbanako euskaltzaleekin elkarlanean** antolatzen, indarrak biderkatzeko!

Material kutxa sortu dugu webgunean, ekainaren 13ko **mobilizazioaren zabalpena egiteko oinarrizko baliabide eta materialak** jasotzen joango gara (kartelak, inprimatzeko euskarriak, sare sozialetarako edukiak eta bestelakoak):

www.kontseilua.eus/ekainak13

→ Herrietan atxikimendu ekimenak

Ekainera bitarte, **mobilizazioaren zabalpena** (propaganda, deialdia indartzeko ekintzak, herriko eragileekin lanketa...) **egiteko laguntza eskatu nahi dizuegu**: ekainaren 13an Iruñeko kaleak betetzeko erronka dugu eta deialdia indar bereziz lantzea izango da Iruñeko kaleak betetzeko giltza.

Proposamena: herrietan Euskaltzaleon Martxari atxikimendu publikoa eman nahi izanez gero, bi aukera proposatzen ditugu:


1. **Argazkiak** atera, taldean edo banaka, kartela eskuetan.
2. **Bideoa** grabatu, taldean edo banaka, atxikimendua emanez eta Martxara joateko arrazoi bat adieraziz.

Ondoren, sare sozialetan igo dezakezue “Euskalgintzaren Kontseilua” (@kontseilua) etiketatuz.

Zuen herri edo auzoko egitarau baten barruan, zein ekintza solte bezala, argazki herrikoia egiteko deialdi irekia egiten baduzue, jakinarazi ekimenak@kontseilua.eus emaillean eta guk ere deialdia zabaltzen lagunduko dizuegu.

Eskuorriak ere banatu ditzakezue. Hemen deskargatzeko ereduak:

- [Eskuorria A5 \(PDF\)](#)
- [Eskuorria A4 bi aldeetatik \(PDF\)](#)



→ Kartelak eskatzeko

Kartelak herrietara AEKko euskaltegien bidez banatuko dira. Zuen elkartetik kalean, lantokian, ikastetxean edo beste edozein tokitan jartzeko kartelak nahi badituzue, bete mesedez galdetegi hau: <https://forms.gle/u9tjJUWySXMeXwkx5>

Galdetegia bete ondoren, zuekin harremanetan jarriko gara kartelak non eta noiz jaso ditzakezuen azaltzeko. Kartelak din A2 tamainakoak izango dira, bertikalak.

Zure herrian, auzoan edo eskualdean euskalgintzako eragile gehiago badaude (euskara taldeak, euskaltegiak eta abar), eurekin harremanetan jarri eta elkarrekin antolatzea eskertuko dugu.

Bestalde, kartelak zure kabuz inprimatzeko aukera baduzu (lantokian, etxean, kopistegian...), jaitsi hemen A3 tamainako **KARTELA**.

→ Sare sozialetarako edukiak

Sare sozialetarako formatu eta tamaina ezberdinetara egokitu dugu kartela. Jaisteko sakatu irudien gainean.



Instagram / Facebook / Whatsapp
[Jaitsi hemen](#)



Instagram Stories
[Jaitsi hemen](#)



Karrantua
[Jaitsi hemen](#)



Horizontala
[Jaitsi hemen](#)

→ Autobusak antolatzeko

Herri, auzo eta eskualdetik Iruñera joateko autobusak antolatzekotan, inguruko euskalgintzarekin harremanetan jartzea eta elkarrekin antolatzea hobesten dugu. Herri bakoitza arduratu beharko da antolaketaz, zabalpena egiteaz eta gastuak ordaintzeaz.

Jada autobusa antolatuta dagoenean, koordinazio lanak errazteko jakinarazi mesedez formulario hau betez: <https://forms.gle/yFfMapheXRFQGErX7>

Arazorik balego, idatzi ondorengo emailera: ekimenak@kontseilua.eus

→ Bestelako ekimen posibleak

- Bazkideen edo harpidedunen email zerrendak dituzten elkarte/eragileen kasuan, ohiko buletin edo bidalketetan deialdiaren aipamen bat txertatu daiteke, edo email oso bat bidali mobilizaziora joateko eta zabalpenean laguntzeko gonbitarekin.



- Mobilizaziora deitzeko elkarrearen kartel propioak edota sareetako edukiak sortzea, imajinazio apur batekin.
- Hedabideetara iritzi artikulak edo prentsa oharrak bidaltzea (tokiko euskalgintzaren atxikimenduarekin, adibidez).
- Kontseiluaren sare sozialak jarraitu eta mezuak zabaltzea: [X/Twitter](#) · [Mastodon](#) · [BlueSky](#) · [Instagram](#) · [Facebook](#) · [TikTok](#).

→ Euskaltzaleon Gida

“Euskaltzaleon gida” sortu dugu, euskararen aldeko jarrera euskaltzaleak pizteko tresna. Eskuorri formatura ekarri dugu ahalik eta zabalpen handiena eman asmoz, baina gida osatua www.pizkundera.eus webgunean dago.

- Antolatzen dituzuen ekimenetan eta herri eta auzoetan **zabaltzen laguntzea** eskatzen dizuegu.
- Gidan proposatzen diren hautu eta jarrerak zuenak egin, eredugarri izan.

Harremanetarako eta zalantzak argitzeko: ekimenak@kontseilua.eus edo 670087488 (Maddi) - 664328733 (Patxi).

Eskerrik asko, eta animo!